



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

Gizarte lotura baserri ingurunean



Gizarte lotura baserri ingurunean

Cécile CROUSPEYRE eta Pantxika MAITIAk animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Lantegi horrek adierazi digu gizarte loturaren gaia ez dela baserrialdeetan soilik aztertu behar, ezpada orokorrago, **lurralde osoan**. Baserrialdeetako eta hirietako arteko elkartasunaren gaia ere aztertu behar da.

Belaunaldien arteko lotura oso garrantzitsua da, batez ere luzera begira: belaunaldien arteko transmisioa egin behar da, alor anitzetan egin ere (jakintzak eta praktikak, hizkuntza, lurra, jardunak, etab...).

Gizarte loturen atxikitzean bada euskal berezitasun bat: besta garaiak harremanetarako bide garrantzitsuak dira, baita belaunaldien artean ere.

Azkenik, gizarte loturaren **desmaterializatzea**, batez ere sare sozialen garapenaren bidez, gizarte lotura atxikitzekeo manera berria zaigu. Arazo garrantzitsuak jartzen ditu jokoan: baliabide digitala eskuratu ahal izatea eta baliabide horiek nola balia litezkeen ikastea.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Lantegian parte hartu duten kideen aburuz, zerbitzu anitz beharko lirateke garatu Ipar Euskal Herri osoan, bereziki honako hauek:

- Lurralde osora hedaturiko **garraio eskaintza** egokia;
- **Emari handiko internet zerbitzua eskuragarri izatea** baita bazter lekuetan ere (diplomadun gazteak baserrialdeetan atxikitzekeo ezinbestekoa).

Lurraldean zerbitzu horiek eman beharraz gain, bestelako arropostuak ere sortu dira:

Elkarteen mundua **hobeki lagundu beharko litzateke** gizarte loturaren bideratzaille baita.

Leku partekatutak plantan emateak ekar lezake gizarte lotura lagunduko lukeen lan egiteko molde berria garatzea.

Azkenik, gizarte lotura **hizkuntza eta kultura azkarretan** oinarritu liteke, gizarteratze bideak baitira horiek eta bertakoa izatearen sentimendua handitzen baitute, bai betidanik bertan bizitu direnengan bai eta etorri berriengan ere.

URRATZEKO BIDEAK...

- Elkarreak **sostengatu eta laguntzeko** borondate handiko politika
- Enplegu eremuen eta azpiegituren **berrorekateza**: garraioak, emari handiko internet
- **Gizarte loturaren Biltzar Nagusia** abian jarri eta antolatzea Ipar Euskal Herriko lurralde osoan.

